

## Ingurumenean prozesu “txiki” askok eragiten dute

DORLAZKAN ingurumenaren kudeaketa denon zeregina dela uste dugu: norbanakoarena, entitate publikoena, enpresa handiena, enpresa txiki eta ertainena (ETE) eta mikroenpresena. Horretarako, ezinbestekoa da modu zirkularrean pentsatzea; horrela, ekonomia eredu aldatu ahal izateko eta gizartearen garapenean eragin positiboak lortzeko.


“Ingurumenaren kudeaketa”, “hondakin arriskutsuak”, “gas emisioak” edo “ingurumenarekin erlazioatutako tramiteak” bezalako esaldiak ikustean edo entzutean enpresa handien eta administrazioen zeregina dela pentsatzea da ohikoena. Zer esanik ez “ekonomia zirkularra” edo “circular thinking” modukoak badira. Baina egia esan, edozein neurriko enpresak edo aktibitatek eragin diezaiokete ingurumenari. Zehatzago esanda, **giza-jarduera osatzen duten prozesu txiki bakoitzak eragiten dio ingurumenari, bakoitzak bere neurrian eta era positiboan edo negatiboan**. Zoritxarrez, prozesu gehienek, modu negatiboan eragiten dute: hondakinen sorrera, airera botatako emisioak, ibai edo itsasora isuritako ur-kutsatuak, lehengai ez jasangarrien erosteta, argindarraren edo uraren erabilpen ez arduratsua, etab.

Zentzu horretan, azken hamarkadetan, ingurumena ekonomiaren ardatz nagusietako bat dela adierazten duten estrategiak jaio dira, non **produktuen eta zerbitzuen ekoizpena zein haien kontsumoa jasangarria izan dadin, eredu linealetik ihes egin eta eredu zirkularra pasa nahi duten estrategiak bultzatzen diren**. Hori da, hain zuzen ere, **EKONOMIA ZIRKULARRA**: hazkunde ekonomikoa baliabideen erabilera mugagabetik eta ingurumenaren degradaziotik aldentu eta balio propioa lortzeko mekanismo berriak proposatzen dituen eta ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren garapena ardatz nagusi dituen estrategia, alegia.

Gainera, ekonomia zirkularrak eragindako paradigma aldaketa **Nazio Batuen Erakundearen 2030 Agendarekin lerrokatu egoteaz gain, bertan Garapen Jasangarrirako [17 Helburu](#) (GJH) batzuk erdiesteko funtsezko eragilea** ere bada:

- 7. GJH: Energia arazoizko-prezioan eta ez-kutsatzailea
- 9. GJH: Industria, berrikuntza eta azpiegitura
- 11. GJH: Hiri eta komunitate jasangarriak
- 12. GJH: Ekoizpen eta kontsumo arduratsua

Ildo horretan, Euskadik bat egiten du Nazio Batuen 2030 Agendarekin eta, Garapen Jasangarrirako Helburu (GJH) horiek betetzeko asmoz, [Euskadiko Ekonomia Zirkularreko Estrategia 2030](#) landu du.



Irudia 1: Ekonomia zirkularren eskema (Jatorria IHOBE)

Edozein kasutan, eta lehenago esan den moduan, ekonomia zirkularrek produktu eta zerbitzuen ekoizpen zein kontsumorako **baliabide berriak ematen ditu eskaintzen denari balio gehigarriak eta berritzaileak emanez**. Horretarako, Euskadiko Ekonomia zirkularreko Estrategia 2030 lau jarduketa-esparruren inguruan antolatuta dago, ondoren 10 jarduketa-lerrotan banatuko direnak:

1. Lehiakortasuna eta berrikuntza
2. Ekoizpena
3. Kontsumoa
4. Hondakinen eta bigarren mailako lehengaien kudeaketa



*Irudia 2: Ekonomia zirkularrerako jarduketa-esparruak eta jarduketa-lerroak (Jatorria: Euskadiko ekonomia zirkularrerako estrategia 2030)*

### Eta hau nola ulertzen da enpresa txikietan edo ertainetan?

Ulertzekoa da, enpresa txikienek eta ETEek, gai hauen aurrean atzerakada bat sentitzea: inbertsio ekonomiko handia izango dela pentsa daitekeelako, edo erabiltzen diren terminoen inguruko ustezko ezagutzarik ez dagoelako, edo aldaketak onurarik ez duelako ekarriko eta buruhaustek baino ez dizkielako emango.

Bada, oso oker daude ba. Izenburuan eta sarreran esan bezala, ingurumenean prozesu txiki askok eragiten dute, eta enpresa txikienek prozesu txikiak bai, baina gutxi izango dituzte. Ondorioz, **egin beharreko aldaketak ez dira enpresa handi batek egin beharrekoak bezain handiak**, ezta egin beharreko inbertsioak ere. **Beti eman daiteke buruari bueltatxo bat, eta legeak eskatzen duena baino pauso txiki bat gehiago eman**. Eta bakardadean pentsatzea zaila egiten bada, horretarako gaude: “circular thinking” egiten laguntzeko, zirkularrean pentsatzen laguntzeko.

### INFORMAZIO GEHIAGO:

- Euskadiko ekonomia zirkularren estrategia 2030:  
<https://www.euskadi.eus/informazioa/-/dokumentazioa/2020/euskadiko-ekonomia-zirkularrerako-estrategia-2030/>



BLOG\_01 – Ingurumenean prozesu “txiki” askok eragiten dute – 2021

- Ekonomia zirkularra eta “Circular thinking”: <https://www.ihobe.eus/ekonomia-zirkularra>
- Ekodiseinua: <https://www.ihobe.eus/ekodiseinua>
- Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH): <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es>